

# ABE
## Amara Berriko Egunkaria

nº 71 2011ko Ekainaren 2a



egileak:
Jon, Kamil, Noa eta Amaia.

## a g u r r a

Kaixo! Jon, Amaia, Noa eta Kamilek egin dugun ABEa ikusiko duzue. ABE honetan lan asko ikusiko dituzue. Lan politak eta albiste interesgarriak ikusiko dituzue eta bitxikeri asko. Ondo pesa eta urrengo arte.

Agur.

## 1. Realak entrenatzaile berria izango du.



Realak gaur edo bihar fitxatuko du lehen taldeko entrenatzailea, BERRIA.INFOk jakin duenez. Hiru teknikarirekinariekin da hizketan, eta lehenago Marcelo Bielsarekin ere mintzatu zen. Bielsa ez du baztertua, baina zail ikusten du hura ftxatzea. Klubak aurreko astean jakinarazi zuen eten egin ziola kontratua Martin Lasarte entrenatzaileari. Honek beste urtebeteko kontratua zeukan. "Realak haize freskoa behar du", esan zuen atzo Lorenzo Juarros *Loren* kirol zuzendariak.

## 2. Bartzelonak championsa irabazi zuen.




Aurreko larunbatean Bartzelonak champions liga irabazi zuen , Mantchester Uniteden aurka 1-3. Lehenengo gola Pedrok sartu zuen. Bigarren gola Messik sartu zuen. Giggsek jokaldi oso on bat hasi zuen eta azkenean Rooneyk bukatu zuen jokaldia golean. Azkeneko gola Villak sartu zuen. Prentsan esan zuen lehenengo tokean bota nahi zuela, baina, flashengatik kontrolatu eta gero bota zuen.

## a u r k i b i d e a


**1.- portada:** Realak entrenatzaile berria izango du eta Bartzelonak championsa irabazi zuen.
**2.- inkesta: Nora zoaz oporretan?Norekin?**
**3.- kontu kontari:Txisteak.**
**4.- gu ere idazle: Txisteak.**
**5.- lumaren kilima: sentsazio zirraragarriak.**
**6.- denborapasak:Word puzzle.**


www.amaraberri.com
amaraberrifer.abe@gmail.com

GAUR eta HEMEN

# Ekainak 1a, eskola goizez bakarrik

Gaur ekainak 1a da eta eskola bakarrik goizez hasten gara, beraz, arratsaldea librea izango dugu gainera denbora ona egiten badu hondartzara joateko momentu aproposa da, etxera jatera joateko ere.




# I N K E S T A

## Nora joango zara oporretan? norekin?



Aratz:
Torrevieja, Urdiain, Etxarri, Logroño eta Lizarra.Manex Ander I. eta familiarekin.



Ander L.:
Torrevieja, Etxarri eta Logroño.Aratz eta familiarekin.



Lukas:
Barcelonara. familiarekin.



Ander D.:
Romara familiarekn.



Mikel S.:
Lekeitiora, familiarekin eta agian bat edo bi lagunekin.



Xabier:
Romara. familiarekin.



Iñigo:
Bosnia. Familiarekin.



Alex :
Austria. Familiarekin.



Oscar:
Inglaterrako herritxo batera. Familiarekin.



Jokin:
Corcega. Familiarekin.

**Inkestaren emaitza:Denetarik dago.**

# Txistea

Txori dendara sartu eta loro elebiduna eskatu zuen gizon batek. Eta hanka bakoitzean soka bat zuena erakutsi zion saltzaileak.

-Ezkerreko sokatik tira eginez gero, euskaraz hitz egingo dizu- azaldu zion saltzaileak-. Eskuinekoa tira eginez gero katalanez:

-Aizu, eta bietatik tira egiten badiot?- galdetu zion bezeroak.

-Zoro halakoa! Lurrera joango naiz mokoz aurrera!- erantzun zion loroak.





**Egilea: Manex San Jose**

GU ERE IDAZLE



**ABE**
**hitza aurkitu portadakoak ez du balio**

# *Txistea*

-Zertan zabiltza hemen?
-Beste aldean erori zaizkidan giltza batzuen bila.
-Eta orduan zergatik ez dituzu han bilatzen?
-Hemen argi gehiago dago eta hobeto ikusten dut.

JAJAJAJAJA!!!!




Mozkor batek esaten dio bere lagun bati.
-Zer dago munduan basoa bete ardo baino gauza hobeagorkik?
-Kupela bete ardo!!!

JAJAJAJA!!!

Automobil batean dagoen mozkor batengana urbildu eta esaten dio:



.-Aizu egoera honeta zuk ezin duzu inola ere gidatu.
- Eta zer arraio egin behar dut, ba? Ezin badut gidatu, are gutxiago oinez ibili, mozkor mozkor eginda nago eta!





Egilea:Noah Nafarrate

# SENTSAZIO ZIRRARAGARRIAK

Ni 11 urteko ikasle bat naiz beraz, ez ditut esperientzi askorik bizi; baina, gertatutako bat kontatuko dizuet: Nire jaurnatze egunean sentitutakoa: Bost egun falta dira nire jaunartzerako urduri nago, anketan dardarak sentitzen ditut, bainan, gogo handia dut, soinekoa prest dago, argazkiak egin ditut eta ilea nola jarriko dudan erabakitzea falta zait, proposamen asko jaso ditut: Ilea kizkurtzea, ilea lisoa...azkenean ile lisoa lore txiki batzuekin jarriko dut eta bihar bertan ile -apaindegira joango naiz. Gaur lo asko egin behar dut jaunartzean ez lo hartzeko, bainan, ez dut lortzen lo egitea sabelean pinpilipausak sentitzen ditut.

Gaur nire jaunartze eguna da eta benetan urduri nago. Nire familia osoa ni ikustera etorriko da eta nire amonak urrezko eskumuturreko bat oparitu dit eskumuturrean jartzeko. Elizan nago, oso urduri, nire katekesi ikaskideekin atean itxaroten nago eta beldurra dute, beste batzuk oso pozik daude... Soinekoaren idunak azkurea eragiten dit,bapatean apaiza etorri da eta pasatzeko esan digu. Nire bihotza etengabeki taupa egiten hasi da eta poza sentitu dut, hau niretzat garrantzitsua da, darrdara asko sentitu ditut. Ez dut inoiz olata jan eta probatzeko gogo asko dut, jaunartzea hasi da: Ogia heman digu... pozik nago pixkat urduri baina pozik.

Jaunartzea bukatu da eta nire familiarekin nago. Esperientzia ikaragarria izan da. Oso pozik nago kristaua izatea gatik... Orain badakit urduri egotea normala dela eta hau niri eta munduko haur askori ere gertatuko zaiela, sentsazio harrigarri hau bizitzea pena merezi du. Poza, urduritasuna, dardara... Horrelako sentsazio guztiak egun bakar batean, harrigarria!





Egilea: Elena Landa

abe

DENBORAPASAK



ABE hitza aurkitu
Portadakoak ez du balio

# Word search puzzle

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| c | v | q | r | h | j | c | s | k | s | c | x | g | g | a |
| o | t | i | b | e | i | v | c | e | d | h | g | l | t | w |
| m | x | e | n | x | d | p | l | v | f | e | h | g | z | l |
| y | q | f | a | m | f | i | e | w | p | e | e | q | k | h |
| s | c | a | o | a | d | r | p | o | g | t | z | t | e | x |
| u | c | x | l | o | i | v | k | s | i | a | n | t | c | f |
| b | x | a | c | r | h | i | n | o | m | h | y | o | q | d |
| w | o | o | k | p | t | m | l | g | v | g | z | r | u | n |
| k | r | l | d | a | q | a | o | o | y | b | u | r | n | w |
| c | b | q | m | z | n | r | c | u | x | i | p | a | v | n |
| c | s | i | e | i | i | g | p | y | m | t | a | p | a | u |
| a | f | b | n | l | y | x | a | t | l | s | n | g | x | x |
| y | r | r | l | l | y | b | z | r | y | m | d | m | v | e |
| a | x | a | k | s | y | e | k | n | o | m | a | y | s | t |
| e | l | e | p | h | a | n | t | s | g | o | d | k | j | h |

cat
cheetah
crocodiles
dog
elephants
gorilla
hippo
kangaroo
koala
monkeys
panda
parrot





Egilea: Aimar Zugazti